

"San Sebastián Turismo – Donostia Turismoa, S.A."ren MARKETIN KUDEAKETAKO TEKNIKARIAREN lanpostua aldi baterako betetzeko hautaketa prozesuaren kanpo deialdia.

- **1.FASEAREN (Ezagutzaren azterketa) BEHIN-BEHINEKO EMAITZA.**
- **2. FASEA EGITEKO DEIALDIA (Gaitasunen analisia) eta 3. FASEARI DAGOKION DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA (Merituen balorazioa).**

Lehenengoa.- Goian aipatutako deialdiaren ondorengo emaitzak argitaratzen dira:

- 1.FASEA: Ezagutzaren azterketa (1.ERANSKINA)

Bigarrena.- Hautagaiek egokitzen hartzen dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte 2 egun balioduneko epean, zerrenda hau argitaratzen den egunetik hasita (2024ko irailaren 3an eta 4an). Horretarako, San Sebastián Turismo-Donostia Turismoa, S.A.ren web orrian dagoen formularioa bete eta Zuzendaritza arlora bidaliko dira, helbide elektronikoa honetan: direccionsansebastianturismo@donostia.eus. Epea irailaren 4an amaituko da, 14:00etan.

Hirugarrena. 2. FASEA – GAITASUNEN ANALISIA.

Deialdiaren oinarrietan ezarritakoari jarraiki, **1.Fasea gainditu duten hautagaiei 2.Fasea (Gaitasunen analisia) egiteko deia egiten zaie, ondokoaren arabera:**

EGUNA	ORDUA	LEKUA
2024ko irailaren 6	<u>Ikusi 2. Eranskina</u>	Donostiako Udalaren GOIKOA JAUREGLAN (Ilurrita Gela)

Laugarrena. 3. FASEA - MERITUEN BALORAZIOA

2. Fasea (Gaitasunen analisia) egitera deituak izan diren egunean (2. Eranskinaren arabera), honako ziurtagiri eta/edo egiaztagiri hauek aurkeztu beharko dituzte hautagaiek:

- **Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak:**
Eskatutako prestakuntza akademikoari eta hizkuntzei buruzko jatorrizko dokumentazioa eta fotokopiak aurkeztu behar dira, baita Lan bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emana, edo kontratuaren hasiera eta amaiera data eta iraupen osoa egiaztatzen duen beste agiriren bat ere. Lan kontratuak ere aurkez daitezke, baldin eta kontratuaren edukitik ondoriozta badaiteke zer lan egin den, edo enpresaren beste ziurtagiri batzuk, lanbide-kategoria eta betetako eginkizunak zehazten dituztenak.
- **Merituak, aldez aurretik aurkeztu behar izan direnak, parte hartzeko eskabide orrian:**

Jatorrizko dokumentazioa eta fotokopia aurkeztuko dira.

Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, eta honela egiaztatu beharko dira:

- A) Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatzen den titulazioa osatzeko prestakuntza, lanpostuarekin lotutakoa.

Ikastaroak egiaztatzen dituzten agiriek ikastaroaren iraupena (orduak) zehaztu beharko dute, bai eta edukia ere, ikastaroaren izenburutik ezin bada ondorioz atera.

- B) Lanpostuko eginkizunekin eta erantzukizun mailarekin lotutako esperientzia profesionala.

Lan bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emana, edo kontratuaren hasiera eta amaiera data eta iraupen osoa egiaztatzen duen beste agiriren bat. Lan kontratuak ere aurkez daitezke, baldin eta kontratuaren edukitik ondoriozta badaiteke zer lan egin den, edo enpresaren beste ziurtagiri batzuk, lanbide-kategoria eta betetako eginkizunak zehazten dituztenak.

- C) Espainieraz besteko EBko hizkuntza ofizialak jakitea, hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatzen direnak eta beste batzuk (beste maila edo beste hizkuntza bat).

Egiaztatutako ezagutzaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

Hautagaiak deialdi bakarraren bidez deituko dira, eta deitutako pertsona bat probetako batean agertzen ez bada, automatikoki galduko du proba horretan parte hartzeko eskubidea; ondorioz, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatutako eta Hautaketa Batzordeak aintzat hartutako kasuetan izan ezik.

Hautagaiek NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren originala aurkeztu beharko dute. Agiri horietakoren bat aurkezten ez badute, ezin izango dituzte probak egin.

Sin. Hautaketa Batzordea
Donostia, 2024ko irailak 3

1.ERANSKINA:**1.Fasearen behin-behineko emaitza (Ezagutzaren azterketa).**

IDENTIFI- KAZIOA (*)	1.FASEA EZAGUTZAREN AZTERKETA	
	GUZTIRA (gutxienez 15/25 puntutik)	KALIFIKAZIOA
0360	15,50	GAI
0657	17,00	GAI
1897	15,00	GAI
2480	19,00	GAI
6202	15,00	GAI
6242	15,50	GAI
7279	15,00	GAI
9811	17,50	GAI

(*) NANaren edo identifikazio-agiri baliokidearen zenbakiaren laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren posizioetan dauden digituak.

2.ERANSKINA:**2.Fasea egiteko dealdia – Gaitasunen analisia.**

IDENTIFI- KAZIOA (*)	2.FASEA GAITASUNEN ANALISIA	
	EGUNA	ORDUA
0360	2024/09/06	8:30
0657	2024/09/06	9:10
1897	2024/09/06	10:00
2480	2024/09/06	10:40
6202	2024/09/06	11:20
6242	2024/09/06	12:00
7279	2024/09/06	12:40
9811	2024/09/06	13:20

(*) NANaren edo identifikazio-agiri baliokidearen zenbakiaren laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren posizioetan dauden digituak.